

JOSE MENDIAGA

LEHEN PEREDIKUA

- 1 Agurtzen zütüegü oro so egile maitagarriak Hürrüntik jinik gütara oro pastoralzaleak.
- 2 Mendiagueren ürratsetan date gure bidajea Hau zen Alduden sortüa gero Hazpandar gaztea.
- 3 Mila zortzi ehun eta hiruetan hogeita bostean Eüskaldün hanitx bezala behar üken züan joan.
- 4 Ameriketari sartü zen Urüguai eskualdean Gero Argentinan ere ariko da hau lanean.
- 5 Bi eskualde horietan izanen da gure historia Eüskaldünen üngürüan beitzen ere larderia.
- 6 Bertsüak eta kantoreak goizik zütüan asmatü Eta kültüra mailan bere bidea hautatü.
- 7 Margarita Gandollarekin San Josén da ezkontüko Eta biek herri hortan ostatü bat zabaltüko.
- 8 "Euskaldunak bat" alkarteak sortüren düe berehala Eta pelotan ere dü erakutsiko ahala.
- 9 Ikusiren ere dütü Urüguai et(a) Argentinan Eüskaldünen semeak kargürük handienetan.

LEHEN PEREDIKUA

- 1 Agurtzen zaituztegu oro, so-egile maitagarriak. Urrundik jinik gutara, oro pastoralzaleak.
- 2 Mendiagaren urratsetan dateke gure bidajea. Hau zen Alduden sortua; gero, hazpandar gaztea.
- 3 Mila zortzihun eta hiruretan hogeita bostean, euskaldun anitz bezala, behar ukan zuen joan.
- 4 Ameriketari sartu zen, Uruguai eskualdean. Gero, Argentinan ere ariko da hau lanean.
- 5 Bi eskualde horietan izanen da gure historia, euskaldunen inguruan baitzen ere larderia.
- 6 Bertoak eta kantoreak goizik zituen asmatu, eta kultura mailan bere bidea hautatu.
- 7 Margarita Gandollarekin San Josen da ezkonduko, eta biek herri horretan ostatu bat zabalduko.
- 8 "Euskaldunak bat" elkarteak sortuko dute berehala, eta pilotan ere du erakutsiko ahala.
- 9 Ikusiko ere ditu Uruguai eta Argentinan euskaldunen semeak kargurik handienetan.

jin: etorri

dateke: izango da
bidaje: bidaia

larderia: gogorkeria

kantore: abesti

10
Gerlarik ez dü eginen
bena idatziarekin
Artekaria dateke
hanko eta hebenkoekin.

11
Ez da sekulan egonen
berriz Eüskal Herrian
Bena aktore handia
date Hego Amerikan.

12
Hortan üzten zütüegü
beharrezko bidajantak
Gure taldearekilan
biltzera oritzapenak.

10
Gerlarik ez du eginen,
baina idatziarekin
artekaria dateke
hango eta hemengoekin.

11
Ez da sekulan egonen
berriz Euskal Herrian,
baina aktore handia
dateke Hego Amerikan.

12
Horretan uzten zaituztegu,
beharrezko bidaiariak,
gure taldearekin
biltzera oritzapenak.

dateke: izango da

dateke: izango da

SATANAK SU EMAILE

Kanpotik, satanak heldu

Lozer**13**

Ikusten duka Lakasta
hortxeko bele saldoa
Sarri badükek segür ere
koarkarien aho tiroa.

Lakasta**14**

Ez har axolik tiletaz
bürüz dük jakingabea
Hor ageri direnetaz
ez dükegü ahalkea.

Lozer**15**

Behar diagü ordüan
ikusü Ameriketan
Zer jükütria izan zen
Eüskaldünen alorretan.

Lakasta**16**

Lehenik dantza batekin
ezar dezagün goimaila
Satanak dü arrakasta
hortan gure dohain saila.

SATANAK SU EMAILE**Lozer****13**

Ikusten duka, Lakasta,
hortxeko bele-saldoa?
Sarri badükek, segur ere,
kroakarien aho-tiroa.

Lakasta**14**

Ez har axolarik tiletaz;
buruz duk jakingabea.
Hor ageri direnez
ez dukegu ahalkea.

Lozer**15**

Behar diagu, orduan,
ikusü Ameriketan
zer jukutria izan zen
euskaldunen alorretan.

Lakasta**16**

Lehenik, dantza batekin
ezar dezagun goi-maila.
Satanak du arrakasta
horretan, gure dohain-saila.

saldo: talde
sarri: berehala
dukek: izango duk
kroakari: karrankalari

tilet: zirikada

dukegu: izango dugu
ahalke: lotsa

jukutria: azpikeria

1. JELKALDIA

1848an, François Mendiaga eta Catherine emaztea Hazparnerat aldatu ziren

Erramun**17**

Agur Aldudar aüzoak,
jinik gure ikustera auzokideak
Ala asmüa düzüe
omen heben bizitza?

François Mendiaga**18**

Gure xedea bi hitzez
beste abiatze bat lükek
Aserik nük "guarda" izatez
zerbait ezagützen dükek?

Maiana**19**

Entzün berri diat arren
karrikan balizateke
Ostatü bat hartzekoa
züen ontsa lizateke?

Catherine Mendiague-Larregain**20**

Aspaldian asmüa dü
lan bat hortan egitea
Audela Frantxoarekilan
plazer düket izatea.

Erramun**21**

"Dukiaineko" ostatüan
ezagützen dü nausia
Banoazü aipatzera
züek düzüen xedea.

François Mendiaga**22**

Eskertzen haigü bihotzez
guretako egin gaüzaz
Bihar berean prest gira
lan hortan hasteko beraz.

Denak badoaz

1. JELKALDIA**Erramun****17**

Agur, aldudar auzoak,
jinik gure ikustera, auzokideak.
Ala asmoa duzue
omen hemen bizitza?

François Mendiaga**18**

Gure xedea, bi hitzez,
beste abiatze bat lukek.
Aserik nauk guarda izatez.
Zerbait ezagutzen duk?

Maiana**19**

Entzun berri diat, arren:
karrikan balizateke
ostatu bat hartzekoa.
Zuen ontsa lizateke?

Catherine Mendiaga-Larregain**20**

Aspaldian asmoa dut
lan bat horretan egitea.
Audela, Frantxoarekin
plazer duket izatea.

Erramun**21**

Dukiaineko ostatuan
ezagutzen dut nagusia.
Banoa aipatzera
zuek duzuen xedea.

François Mendiaga**22**

Eskertzen haugu bihotzez
guretako egin gauzaz.
Bihar berean prest gara
lan horretan hasteko, beraz.

jin: etorri

bi hitzez: bi hitzez esanda

guarda: mugazain

arren: bada

zuen: zuentzat

ontsa: ongi

audela: gainera

duket: izango dut

2. JELKALDIA

François eta Catherine Mendiagaren bi haurrek Euskal Herria utzi zuten

François Mendiaga**23**

Malur hanitx üngürüan
gosea eta kolera
Zeri бүрүз ari gira
ez дүгү hon egoera.

Maiana**24**

Audela heben enpresak
oro dira zerratzeko
Hori prefosta oihala bistan dena,
heben beita erosteko.

Erramun**25**

Laborantxan ere dira
egiazko bide gaixtoan
Gaztainatzeak eritүrik
aihenak ostoerdoilan.

Catherine Mendiaga-Larregain**26**

Eta bestalde gureztat
gogor izan da bizia
Lau haur hilik orotara
nigarretan дүт begia.

Martin Mendiaga**27**

Gazteentako geroa
nik uste Ameriketean
Han aberasten dirade
Gisala urte batetan.

28

Heben гаүзак ikusirik
hartү дүт deliberoa
Argentinarat abiatzea
jarraikiz besten ildoа.

Denis Bertrand Mendiaga**29**

Enetako ber haütüа
bena ez da ber günea
Txilerako itsasontzia
hartzen dit ama maitea.

2. JELKALDIA**François Mendiaga****23**

Malur anitz inguruan,
gosea eta kolera.
Zeri buruz ari gara?
Ez dugu on egoera.

Maiana**24**

Areago, hemen enpresak
oro dira zerratzeko.
Hori, prefosta, oihala, bistan dena,
hemen baita erosteko.

Erramun**25**

Laborantzаn ere dira
egiazko bide gaiztoan:
gaztainatzeak eritүrik,
aihenak hosto-herdoilean.

Catherine Mendiaga-Larregain**26**

Eta, bestalde, gureztat
gogor izan da bizia.
Lau haur hilik orotara,
nigarretan дүт begia.

Martin Mendiaga**27**

Gazteendako geroa
nik uste Ameriketean.
Han aberasten dira,
gisala, urte batean.

28

Hemen гаүзак ikusirik,
hartu дүт deliberoa
Argentinarat abiatzea,
jarraikiz besten ildoа.

Denis Bertrand Mendiaga**29**

Enetako ber hautua,
baina ez da ber günea.
Txilerako itsasontzia
hartzen дүт, ama maitea.

malur: zorigaizto**zeri buruz:** norantz**zerratu:** itxi**prefosta:** jakina**gaztainatze:** gaztainondo**gisala:** antza denez**delibero:** erabaki**hautu:** aukera**gune:** toki

Catherine Mendiaga-Larregain
30

Beste pena bat handia
haurren hurrün joatea
Bihotza düt urratürik
ama hanitxen zortea!

Oro badoaz.

Catherine Mendiaga-Larregain
30

Beste pena bat handia
haurren urrun joatea.
Bihotza dut urraturik;
ama anitzen zortea!



KANTA I Bihozminez

a1

Goiz batez abiatu zidee, etxetik kanpora
Argazkian den bezala, jarri da denbora
Amaren eskuetan gaur, haurraren atorra
Aitaren bihotzean, dolore gogorra.

a2

Zer egiten ahal dugu, irus ikusteko
Amodioa baizik ez, züer eskentzeko
Mündü zabal hortan züen berriz
laguntzeko
Bagünü eskü (e)ta begi ere hedatzeko.

a3

Etxen ikasi arloa, jadanik badoa
Har ezazüe semeak, funtsezko ildoa
Bihotzean begiratüz, euskaldün erroa
Eta haurrer irakats otoi, hebenko giroa.

Errepika

Gogoan baratzen, ororen nigarra
Eta ezin gorde, algarren beharra
Behin egizüe, honarat ber indarra
Ikusteko berriz, euskaldün ibarra.

KANTA I Bihozminez

a1

Goiz batez abiatu zarete etxetik kanpora.
Argazkian den bezala jarri da denbora.
Amaren eskuetan gaur haurraren atorra.
Aitaren bihotzean dolore gogorra.

a2

Zer egiten ahal dugu uros ikusteko?
Amodioa baizik ez zuei eskaintzeko,
mundu zabal horretan zuen berriz
laguntzeko.
Bagenu esku eta begi ere hedatzeko!

a3

Etxen ikasi arloa jadanik badoa.
Har ezazue, semeak, funtsezko ildoa,
bihotzean begiratuz euskaldun erroa.
Eta haurrei irakats, otoi, hemengo giroa.

Errepika

Gogoan baratzen ororen negarra,
eta ezin gorde elkarren beharra.
Behin egizue honat ber indarra,
ikusteko berriz euskaldun ibarra.

uros: zoriontsu

etxen: etxean

begiratu: zaindu, gorde

baratu: gelditu

3. JELKALDIA

Jose Mendiaga, bere irakasle Michel Elizanburu eta Gratien Zaldubirekin

Gratien Zaldubi**31**

“Frereta” eskolan zira aspaldian bürüzagia Egün egiazki zurekin han hor sartzen da fedea.

Michel Elizanburu**32**

Badakit gazte badela Jinkoa ere galdürik Eta abiatzen direla lagünak heben ützirik.

Jan Batista Otxalde**33**

Biek düzüe Jinkoa beti aitzina ezarten Ahal lirate artetarik koblak gazteer irakasten.

Gratien Zaldubi**34**

Heben ikusi berri düť kantari eta bertsulari Hortxe bi gazte horietan badira bi xarmagarri.

Jan Batista Otxalde**35**

Agian hasiko dira koblakan bertan gurekin Bi godalet edan eta beren gazte lagünekin.

Jose Mendiaga**36**

Züer esker hanitxetan kantatzen dügü jeietan Gurekin ez da galdüko eüskal kültüra batetan.

Xemartin Harriaga**37**

Gaur dira Zelaiko bestak famatürik handienak Goatzan harat bertan denak ikus bertsu balentriak!

3. JELKALDIA**Gratien Zaldubi****31**

Frereta eskolan zara aspaldian buruzagia. Egun egiazki zurekin han-hor sartzen da fedea.

Michel Elizanburu**32**

Badakit gazte badela Jainkoa ere galdurik, eta abiatzen direla lagunak hemen utzirik.

Jan Batista Otxalde**33**

Biek duzue Jainkoa beti aitzina ezartzen. Ahal lirateke artetarik koblak gazteei irakasten.

Gratien Zaldubi**34**

Hemen ikusi berri dut kantari eta bertsolari. Hortxe bi gazte horietan badira bi xarmagarri.

Jan Batista Otxalde**35**

Agian hasiko dira koblakan bertan gurekin, bi godalet edan-eta beren gazte lagunekin.

Jose Mendiaga**36**

Zuei esker, anitzetan kantatzen dugu jaietan. Gurekin ez da galduko euskal kultura bet-betan.

Xemartin Harriaga**37**

Gaur dira Zelaiko bestak, famaturik handienak. Goazen harat bertan denak. Ikus bertso-balentriak!

Frereta eskola: fraide-eskola**artetarik:** noizean behin
kobla: bertso**koblakan:** bertsoka
bertan: berehala
godalet: edalontzi
edan-eta: edan ondoren**bet-betan:** bat-batean**bertan:** berehala

38

Bidea egin dezagün
denek ezagützen dügü
Apezak guri fidatü
ez gira arras bürüngürü!

Denak erretira

38

Bidea egin dezagun;
denek ezagutzen dugu.
Apezak guri fidatu.
Ez gara arras buringuru!

buringuru: burugabe

4. JELKALDIA

1865ean, Jose Mendiaga Uruguairat joan zen

Jose Mendiaga**39**

Orai badik urte zonbait honarat heltürik hizala Plazer diat hire ikustez egin diat hik bezala!

40

Zer da hebenko bizia han zernahi entzüten da Egün jakinen düt beraz zer den gazteen segida.

Martin Mendiaga**41**

Ikusten dük ez nizala orano aberastürik Heben lanak gogor dira orenak ez kontatürik.

Maria**42**

Eüskaldünak oro gira hargin edo eznekari Ala bardin maiastürü gogoia dügü ezari.

43

Emazteak üsü aldiz latsari eta neskato Lisazale, zerbütñari josle aberatsentako.

Jose Mendiaga**44**

Laneko ez düt düdarik hortxe nüzü zerbütñüko Züen artean izateak bihotza dereit berotüko.

Martin Mendiaga**45**

Kantüko ostatü hortara joan gitean orai denak Algar kontatzeko arren hanko, hebenko berriak.

4. JELKALDIA**Jose Mendiaga****39**

Orain badik urte zenbait honat heldurik haizela. Plazer diat hire ikustez. Egin diat hik bezala!

40

Zer da hemengo bizia? Han zernahi entzüten da. Egun jakinen dut, beraz, zer den gazteen segida.

Martin Mendiaga**41**

Ikusten duk ez naizela oraino aberasturik. Hemen lanak gogor dira; orenak ez kontaturik.

Maria**42**

Euskaldunak oro gara hargin edo esnekari, ala berdin maiasturu. Gogoia dugu ezarri.

43

Emazteak usu, aldiz, latsari eta neskato, lisatzaile, zerbitzari, josle aberatsendako.

Jose Mendiaga**44**

Laneko ez dut dudarik. Hortxe naiz zerbitzurako. Zuen artean izateak bihotza dit berotuko.

Martin Mendiaga**45**

Kantuko ostatu horretara joan gaitezen orain denak, elkarri kontatzeko, arren, hango-hemengo berriak.

oraino: oraindino, oraindik

esnekari: esneketari
maiesturu: arotz, zurgin

usu: sarri, maiz
emazte: emakume
latsari: arropa-garbitzaile

kantu: albo, ondo

arren: beraz

KANTA II**Joan garenak****b1**

Joan girenak, abiatü gira, ützirik Eüskal Herria

Egon da beti, Eüskal Herria, guretzat xarmagarria

Eskualdeetan, xarmagarria, ütürri zoin berezia

Paregabea, zoin berezia, ametsen bazkazalea.

b2

Joan girenak, izan girade, izarren kontazaleak

Hanitx günetan, kontazaleak, bideen zabalzaleak

Haütü gabeak, zabalzaleak, mündüan ikerzaleak

Bigabostetan, ikerzaleak, nigarren gordazaleak.

b3

Joan girenak, gure herrian, zer ote horkoen soa?

Amerikano, horkoen soa, edo zü Parisekoa!

Gü kanpokoa, Parisekoa, zeren ez Afrikakoa?

Lagün goxoa, Afrikakoa, badügü egitekoa!

b4

Joan girenak, deitürrik omen, arrotzak, gosejaleak

Fede gabeak, gosejaleak, leküko lan harzaleak

Geroztik gira, lan harzaleak, orotan ezagütüak

Besten artean, ezagütüak, leküak irabaziak.

KANTA II**Joan garenak****b1**

Joan garenak abiatu gara utzirik Euskal Herria.

Egon da beti Euskal Herria guretzat xarmagarria.

Eskualdeetan xarmagarria, iturri zein berezia!

Paregabea, zein berezia, ametsen bazkatzailea.

b2

Joan garenak izan gara izarren kontatzaileak;

anitz gunetan kontatzaileak, bideen zabaltzaileak;

hautu gabeak zabaltzaileak, munduan ikertzaileak;

biga-bostetan ikertzaileak, negarren gordetzaileak.

b3

Joan garenak, gure herrian zer ote horkoen soa?

Amerikano, horkoen soa, edo zu Parisekoa!

Gu kanpokoa, Parisekoa, zeren ez Afrikakoa?

Lagun gozoa, Afrikakoa, badugu egitekoa!

b4

Joan garenak deiturik omen arrotzak, gose-jaleak,

fedegabeak, gose-jaleak, lekuko lan-hartzaleak.

Geroztik gara lan-hartzaleak, orotan ezagutuak,

besten artean ezagutuak, lekuak irabaziak.

eskualdeetan: herrialde guztietan

gune: toki

biga-bostetan: maiz, sarri

so: begirada

zeren: zergatik

gose-jale: goseti, gosekil

5. JELKALDIA

Uruguako bihurriak

Xantxola**46**

Orai honarat heltzen dira
herrietarik joaile horik
Zer ote eginen diñe?
segurik zerbait okerrik.

Tzintzarri**47**

Lagüntüko ditiñagü
beren artean nahasten
Gosetzen balin badira
hasiko dütün ebasten.

Teka**48**

Hebenko lürrak hartürik
kabalez hau kargatürik
Sekülan aski ez diñe
handitarzünak hantürik.

Faizutsü**49**

Han hor politikan ere
kanpokoak hasten dira
Bena zer baratüko da
herrian gü nausi gira.

Xapata**50**

Gü orotan etxen gütün
Ameriketän erregiña
Sosaren ütürri alde
eta debalde seküla.

Karruin**51**

Aski egünko erranik
egon gitean ezkapa
Horien artean ez beita
hobetüren gure sapa.

5. JELKALDIA**Xantxola****46**

Orain honat heltzen dira
herrietarik joale horiek.
Zer ote eginen dinate?
Segurik, zerbait okerrik.

Tzintzarri**47**

Lagunduko ditinagu
beren artean nahasten.
Gosetzen baldin badira,
hasiko ditun ebasten.

Teka**48**

Hemengo lurrak harturik,
kabalaz hau kargaturik,
sekulan aski ez dinate,
handitasunak hanturik.

Faizutsu**49**

Han-hor politikan ere
kanpokoak hasten dira.
Baina zer baratuko da?
Herrian gu nagusi gara.

Xapata**50**

Gu orotan etxen gaitun;
Ameriketän erregina.
Sosaren iturri, alde;
eta debalde, sekula.

Karruin**51**

«Aski egungo» erranik,
egon gaitezen eskapu,
horien artean ez baita
hobetuko gure sapa.

ebatsi: lapurtu**kabala:** abere, azienda**hantu:** puztu**baratu:** gelditu, geratu**etxen:** etxean**sekula:** sekula ez**egungo:** gaurkoz**eskapu:** ihesaldi**sapa:** kar, gogo bizi

6. JELKALDIA

1870 urtean, Aliantza Hirukoitzaren Gerra amaitu zen

Juan Idiarte Borda**52**

Francisco Solano Lopez gerokoz da matatürrik
Orai bakea dateke
gubernü bat bertan txütik!

53

Ehünka hilak badira
nausi oso horren gatik
Lürrak dener zabaltürrik
popülüa goseturik.

Francisco Caraballo**54**

Heben ere entzün dügü
badirela hüilantzen ari
Irailtzale talde zonbait
denentako lotsagarri.

Timoteo Aparicio**55**

Lehendakari hirokinak
behar dira tirokatü
Ifernüan horientako
lekü eder bat zabaltü.

Benitez Innocent**56**

Lorenzo Battle dügüno
kargürrik handianean
Ez date bakerik heben
bizizalean artean.

Lorenzo Battle**57**

Orai aski gerla bada
bakea düt gaur txerkatzen
Esküak eman detzagün
kargüak düüt zabaltzen.

6. JELKALDIA**Juan Idiarte Borda****52**

Francisco Solano Lopez gerokoz da mataturik.
Orain bakea dateke.
Gobernu bat bertan zutik!

53

Ehunka hilak badira
nagusi oso horrengatik.
Lürrak denei zabaldurik,
populua goseturik.

Francisco Caraballo**54**

Hemen ere entzun dugu
badirela hullantzen ari
eraile-talde zenbait,
denendako lotsagarri.

Timoteo Aparicio**55**

Lehendakari hirokinak
behar dira tirokatu.
Infernuan horiendako
leku eder bat zabaldu.

Benitez Innocent**56**

Lorenzo Battle duguno
kargurik handianean,
ez dateke bakerik hemen
bizizalean artean.

Lorenzo Battle**57**

Orain aski gerla bada.
Bakea dut gaur xerkatzen.
Eskuak eman ditzagun.
Karguak ditut zabaltzen.

matatu: menderatu
dateke: izango da
bertan: berehala

hullantu: hurbildu

lotsagarri: beldurgarri

hirokin: ustel

duguno: dugun artean

dateke: izango da
bizizale: biztanle

xerkatu: bilatu

7. JELKALDIA

1875ean, Jose Mendiaga eta Martin anaia
Argentinara joan ziren

Jose Mendiaga**58**

Ikusten dük(a) anaia
Urüguain zen bizia
Nik uste hobe dügüla
heben zerbait egitea.

59

Atzaman düt heltü eta
lan bat fabrika batetan
Eta ez baniz gustatzen
date besterik zerbaitetan!

Martin Mendiaga**60**

Lanaz beste ikusten diat
heben ere gerla dela
Eta txipiaren ere
ürkatzen ari direla.

Alberto**61**

Orai berrixko armada
hasi da Indianoer
Armaz hartzen beren lürrak
emaiteko hebenkoer.

Clara**62**

Patagonia (e)ta Chaco
armadaren itzalpetan
Gaixo popülü xaharrak
laster horik azken hatsetan!

Jose Mendiaga**63**

Bazter güzietan bada
handiaren alkargoa
Popülü txipi düen ber
zapatzeko ber gogoa.

Julio Argentino Roca**64**

Egün heziren zütüegü
ontsa armatürik gira
Züen lürrak hartü eta
Argentinan aberria!

7. JELKALDIA**Jose Mendiaga****58**

Ikusten duk, anaia?
Uruguain zen bizia.
Nik uste hobe dugula
hemen zerbait egitea.

59

Atzeman dut heldu-eta
lan bat fabrika batean,
eta ez bazait gustatzen
dateke besterik zerbaitetan!

Martin Mendiaga**60**

Lanaz beste, ikusten diat
hemen ere gerla dela,
eta txipiaren ere
ürkatzen ari direla.

Alberto**61**

Orain berrixko armada
hasi da indianoei
armaz hartzen beren lurrak,
emateko hemengoei.

Clara**62**

Patagonia eta Chaco
armadaren itzalpetan.
Gaixo populu zaharrak!
Laster horiek azken hatsetan!

Jose Mendiaga**63**

Bazter guzietan bada
handiaren elkargoa,
populu txipi duten ber
zapatzeko ber gogoa.

Julio Argentino Roca**64**

Egun heziko zaituztegu.
Ontsa armaturik gara.
Zuen lurrak hartu eta
Argentinan aberria!

heldu-eta: heldu eta gero**dateke:** izango da.**zapatu:** zanpatu

Indianoa**65**

Gure arbasoak ziren
 nausi hebenko lürretan
 Egün gira bühürtüko
 odol dügüno zainetan.

Guduka

Julio Argentino Roca**66**

Gizon eta emazteak
 dütügü han bereziko
 Ez düe haurrik eginen
 arraza da negatüko!

67

Desertü hau guretako,
 badügü zer egiteko
 Ene lehendakarigoa
 popülüak dü honartüko.

Indianoa**65**

Gure arbasoak ziren
 nagusi hemengo lurretan.
 Egun gara bihurtuko
 odol duguno zainetan.

Julio Argentino Roca**66**

Gizon eta emazteak
 ditugu han bereziko.
 Ez dute haurrik eginen.
 Arraza da nekatuko!

67

Desertu hau guretako,
 badugu zer egiteko.
 Ene lehendakarigoa
 populuak du onartuko.

bihurtu: aurre egin
duguno: dugun artean

emazte: emakume

nekatu: agortu

8. JELKALDIA

1880an, Jose Mendiaga Uruguai alderat itzuli zen

Jose Mendiaga**68**

Puerto Ruiz herrian dütüt iragan bost urte beraz Orai San Josen dateke geroa zernahi gisaz!

Martin Mendiaga**69**

Heben kanbiatü dük dena Lorenzo Latorre horrek Ezari dik bahidüra laster ahal kanpo dükek.

Margarita Gandolla**70**

Merak oro kanporatü lan gabekoak zapatü Honen gatik etxautesak dira herrialat heltü.

Rémigio Galdos**71**

Blancos eta Colorados beti dirade güdükan Armada hau handiekin beti txipier mendekan.

Jose Mendiaga**72**

Orai banoazü bertan kantore baten hontzera Eüskaldünen ohidüren gureganik hedatzera.

8. JELKALDIA**Jose Mendiaga****68**

Puerto Ruiz herrian ditut iragan bost urte, beraz. Orain San Josen dateke geroa zernahi gisaz!

Martin Mendiaga**69**

Hemen kanbiatu duk dena. Lorenzo Latorre horrek ezarri dik bahitura. Laster ahal kanpo dukek.

Margarita Gandolla**70**

Merak oro kanporatu. Lan gabekoak zapatu. Honengatik etxautesak dira herrirat heldu.

Rémigio Galdos**71**

Blancos eta Colorados beti dira gudukan. Armada hau handiekin; beti txipiei mendekuz.

Jose Mendiaga**72**

Orain banoa bertan kantore baten ontzera, euskaldunen ohituren gureganik hedatzera.

dateke: izango da

bahitura: morrontza
ahal: ziurrenik
dukek: izango duk

mera: alkate
zapatu: zanpatu
etxautes: baserritar

bertan: berehala
kantore: abesti

KANTA III Montevideoko manera

- c1**
Montevideoko manera
Orai noha kondatzera,
Egia hainitz erraitera,
Gobernuari kontrario hainitz baitzaio atera,
Bota beharrez kanpora,
Berak sartzeko barnera,
Hau da oraiko afera.
- c2**
Orai gerlan dira ari,
Anaiak tiroka elgarri.
Ez deia dolu-e(g)ingarri?
Akabatu-eta, eginen dute gizon handi
hoiek irri,
Emanez jende pobriari,
Sakrifikatu denari
Ospitalia jauregi.
- c3**
Kontent zirenak hastetik,
Urrikituak ondotik:
Zenbait badaude engoitik,
Batzuk zangoak, bertzek besoak,
gorputzetik galdurik.
Bertze hainitz berriz trixterik,
Ez izanez sokorririk,
Partitu dira mundutik.
- c4**
Montevideo-rat jin bedi,
Nahi duenak ikusi
Gerlak zer daukun ekarri:
Barnian bezala, malur e(g)iten du,
kanpainan dagon jendeari,
Partikulazki pobriari,
Zaldi, behi eta ardi,
Denez geldidadin garbi.
- c5**
Xuriak eta gorriak,
Elgarri emanik eskuak,
Zabal zaitzue begiak!
Makurrak, nekez, zuzentzen ditu, gerlako
irabaziak.
Utzirik harma guziak,
Egin zaitzue bakiak!
Hori behar du Herriak.

KANTA III Montevideoko manera

- c1**
Montevideoko manera
orain noa kontatzera,
egia anitz erraitera.
Gobernuari kontrario anitz baitzaio atera,
bota beharrez kanpora,
berak sartzeko barnera.
Hau da oraingo afera.
- c2**
Orain gerlan dira ari
anaiak tiroka elkarri.
Ez da dolu-egingarri?
Akabatu-eta, eginen dute gizon handi
horiek irri,
emanez jende pobreari,
sakrifikatu denari,
ospitalea jauregi.
- c3**
Kontent zirenak hastetik,
urrikituak ondotik.
Zenbait badaude engoitik,
batzuk zangoak, bertzek besoak,
gorputzetik galdurik.
Bertze anitz, berriz, tristerik,
ez izanez sokorririk,
partitu dira mundutik.
- c4**
Montevideorat jin bedi
nahi duena ikusi
gerlak zer digun ekarri.
Barnean bezala, malur egiten dio
kanpainan dagoen jendeari,
partikularki pobreari,
zaldi, behi eta ardi
denez geldidadin garbi.
- c5**
Zuriak eta gorriak,
elkarri emanik eskuak,
zabal itzazue begiak!
Makurrak nekez zuzentzen ditu gerlako
irabaziak.
Utzirik arma guziak,
egin itzazue bakeak!
Hori behar du Herriak.

akabatu-eta: akabatu ostean

haste: hasiera
urrikitu: errukitu
engoitik: dagoeneko

sokorri: laguntza
partitu: abiatu, joan

jin: etorri

malur: zorigaitz

denez: guztietatik

9. JELKALDIA

1881ko martxoaren 29an, Jose Mendiaga Margarita Gandollarekin ezkondu zen

Margarita Gandollaren aita**73**

Botzik niz ikustez egün
bi gazte algarrekilan
Gaineala agüdo bat
bihar date familian.

Margarita Gandollaren ama**74**

Gisa batez horier esker
espos dira bi kùltüra
Italia Eüskal Herri(a)
egiazko aberastüra.

Martin Mendiaga**75**

Egünko egünaldea
beharko dügü harrotü
Eüskaldünen ezpiritüa
heben direner agertü.

Jose Mendiaga**76**

Aspaldian zuretako
ene bihotza airean
Galtatzen dereizüt otoi
ezkontzea enekilan.

Margarita Gandolla**77**

Isilik nintzan haidürü
hire galtoak bozten nik
Berri honez amodioan
Katedral hontan jüntaturik!

Apezpikua**78**

Egün biltzen gira oro
züen heben ezkontzeko
Jinkoaren izenean
kargüa düt honartzeko.

79

Margarita Gandolla, hartü nahi düzüa
esposetako,
José Mendiaga, hortxe dena?

Margarita Gandolla**80**

Bai.

9. JELKALDIA**Margarita Gandollaren aita****73**

Pozik naiz ikustez egun
bi gazte elkarrekin.
Gainera, agudo bat
bihar dateke familian.

Margarita Gandollaren ama**74**

Gisa batez, horiei esker
espos dira bi kultura:
Italia, Euskal Herria,
egiazko aberastura.

Martin Mendiaga**75**

Egungo egunaldi
beharko dugu harrotu;
euskaldunen espiritua
hemen direnei agertu.

Jose Mendiaga**76**

Aspaldian, zuretako
ene bihotza airean.
Galdatzen dizut, otoi,
ezkontzea enekin.

Margarita Gandolla**77**

Isilik nintzen aiduru.
Hire galtoak pozten nauk.
Berri onez amodioan
katedral honetan jüntaturik!

Apezpikua**78**

Egun biltzen gara oro
zuen hemen ezkontzeko.
Jainkoaren izenean
kargua dut onartzeko.

79

Margarita Gandolla, hartu nahi duzua
esposetako
Jose Mendiaga, hortxe dena?

Margarita Gandolla**80**

Bai.

agudo: trebe
dateke: izango da

egunaldi: egun
harrotu: animatu

galdatu: eskatu

aiduru: zain
galto: gelde, eskaera

esposetako: senartzat

Apezpikua

81

Eta zük José Mendiague, hartü nahi düzüa esposatako, Margarita Gandolla, hortxe dena?

Apezpikua

81

Eta zuk, Jose Mendiaga, hartu nahi duzua esposatako Margarita Gandolla, hortxe dena?

esposatako: emaztetzat

Jose Mendiaga

82

Bai.

Jose Mendiaga

82

Bai.

Apezpikua

83

Benedikatzen zütüet espos goxoak, Aitaren, semearen, eta Espiritü Saintüaren izenean Amen.

Apezpikua

83

Benedikatzen zaituztet, espos gozoak, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

KANTA IV **Candombe para José**

d1

En un pueblo olvidado, no sé por qué
y su danza de moreno, lo hace mover
en el pueblo lo llamaban Negro José,
Amigo Negro José.

d2

Con mucho amor candombea el Negro
José
tiene el color de la noche sobre la piel
es muy feliz candombeando, dichoso él
Amigo Negro José.

d3

Perdóname si te digo, Negro José
que eres diablo, pero amigo, Negro José,
tu futuro va conmigo, Negro José,
yo te digo porque sé.

d4

Con mucho amor las miradas cuando al
bailar
y el tamboril de sus ojos parece hablar
y su camisa endiablada quiere saltar.
Amigo, Negro José.

d5

No tienes ninguna pena, al parecer
pero las penas te sobran Negro José.
Que en el baile tú las dejas, lo sé muy bien
Amigo, Negro José.

d6

Perdóname si te digo, Negro José
que eres diablo, pero amigo, Negro José,
tu futuro va conmigo, Negro José,
yo te digo porque sé.
Amigo, Negro José.

KANTA IV **Candombe para José**

d1

En un pueblo olvidado, no sé por qué
y su danza de moreno, lo hace mover
en el pueblo lo llamaban Negro José,
Amigo Negro José.

d2

Con mucho amor candombea el Negro
José
tiene el color de la noche sobre la piel
es muy feliz candombeando, dichoso él
Amigo Negro José.

d3

Perdóname si te digo, Negro José
que eres diablo, pero amigo, Negro José,
tu futuro va conmigo, Negro José,
yo te digo porque sé.

d4

Con mucho amor las miradas cuando al
bailar
y el tamboril de sus ojos parece hablar
y su camisa endiablada quiere saltar.
Amigo, Negro José.

d5

No tienes ninguna pena, al parecer
pero las penas te sobran Negro José.
Que en el baile tú las dejas, lo sé muy bien
Amigo, Negro José.

d6

Perdóname si te digo, Negro José
que eres diablo, pero amigo, Negro José,
tu futuro va conmigo, Negro José,
yo te digo porque sé.
Amigo, Negro José.

10. JELKALDIA

Joseren eta Margaritaren lau haur izan zituzten. Bi txikitan hil ziren.

Jose Mendiaga**84**

Ene emazte maitea
badizügü algarrekin
Eginik gaüza ederrik
denak bihotz honarekin.

Margarita**85**

Egia da ostatü honek
gütü gosetik hürrüntürik
Bena bestalde girade
zorigaitzak higatürik.

86

Egün oroz (di)tit gogoan
Maria eta Francisco
Hain txipi joanik zelüalat
hori da züzengabeko!

Jose Mendiaga**87**

Otoi ez egin nigarrik
bizia doazü aitzina
Eta gurekin hor dira
Martin bai eta Maruja.

Haurrak eta gurasoak**88**

Penatürik heben gira
gure herriak ützirik
Eta baratü direnak
gure lotüra galdürik.

89

Esperantzaren izarra
haur güzien bihotzean
Argitzen dizü nasaiki
bakoitzaren begietan.

90

Haurren botzen entzütea
gure aberastarzüna
Hürrün-minaren tapailü
handitzen dü batarzüna.

91

Esperantzaren izarra
gogoan dügü baliatzen
Eta alde orotarat
Nahi direner hedatzen.

10. JELKALDIA**Jose Mendiaga****84**

Ene emazte maitea,
badugu elkarrekin
eginik gauza ederrik,
denak bihotz onarekin.

Margarita**85**

Egia da; ostatu honek
gaitu gosetik urrundurik,
baina bestalde gara
zorigaitzak higaturik.

86

Egun oroz ditut gogoan
Maria eta Francisco.
Hain txipi joanik zerurat
hori da zuzengabeko!

Jose Mendiaga**87**

Otoi, ez egin negarrik;
bizia doa aitzina.
Eta gurekin hor dira
Martin bai eta Maruja.

Haurrak eta gurasoak**88**

Penaturik hemen gara,
gure herriak utzirik,
eta baratu direnak
gure lotura galdurik.

89

Esperantzaren izarra,
haur guzien bihotzean.
Argitzen du nasaiki
bakoitzaren begietan.

90

Haurren bozen entzütea,
gure aberastasuna.
Urrun-minaren tapagailu.
Handitzen du batasuna.

91

Esperantzaren izarra
gogoan dugu baliatzen,
eta alde orotarat
nahi direnei hedatzen.

higatu: maskaldu, gastatu**baratu:** geratu**nasaiki:** ugariro**boz:** ahots

11. JELKALDIA

1887an, Mendiagak eta Galdosek
"Euskaldunak bat" elkarte sortu zuten, eta
tabako enpresa bat ere zabaldu

Jose Mendiaga**92**

Euskaldün hanitx bagira
honat jinik lanealat
Zer egiten ahal dügü
horien biltzeko algarretarat.

Martin Mendiaga**93**

Nik uste behar den orai
gela eder bat hasteko
Eta hedatü berria
denak dira hüilantüko.

94

Bertsu, kantore, pelota
José hortan dük ganoa
Harrozale hizateke
berotzen beitük giroa.

Remigio Galdos**95**

Beste xede handi baten
hiri ere aipatzeko
Bihar Josérekin diat
enpresa bat zabaltüko.

Martin Mendiaga**96**

Alkarte bat egin dezagün
gaüza horien бүрүtzeko
"Euskaldunak bat" dateke
izen hona horrentako.

Jose Mendiaga**97**

Akort niz lagün goxoak
züekin lan egiteko
Enpresa eta alkarte
horietan parte hartzeko.

11. JELKALDIA**Jose Mendiaga****92**

Euskaldun anitz bagara
honat jinik lanerat.
Zer egiten ahal dugu
horien biltzeko elkarretarat?

Martin Mendiaga**93**

Nik uste behar den orain
gela eder bat hasteko,
eta hedatu berria.
Denak dira hullantüko.

94

Bertso, kantore, pilota.
Jose, horretan duk ganoa.
Harrotzaile haizateke,
berotzen baituk giroa.

Remigio Galdos**95**

Beste xede handi baten
hiri ere aipatzeko:
bihar Joserekin diat
enpresa bat zabalduko.

Martin Mendiaga**96**

Elkarte bat egin dezagun
gauza horien burutzeko.
"Euskaldunak bat" dateke
izen ona horrendako.

Jose Mendiaga**97**

Akort naiz, lagun gozoak,
züekin lan egiteko,
enpresa eta elkarte
horietan parte hartzeko.

hullantu: hurbildu**gano:** gaitasun, trebezia
harrotzaile: animatzaile**dateke:** izango da**akort izan:** ados izan

KANTA V**Kantuz****e1**

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,
 Kantuz igortzen ditut, nik penak ihesi,
 Kantuz izan dudanean zerbeit irabazi,
 Kantuz gustura ditut guziak iretsi,
 Kantuz, ni bezalakoak, hiltzea du merezi.

e2

Kantuz pasatu ditut gau eta egunak
 Kantuz izan dirade ardura ene lanak,
 Kantuz biltzen nintuen aldeko lagunak,
 Kantuz eman daitate obra gabe famak,
 Kantuz hartuko ahal nau, gure Jeinko-
 Jaunak.

e3

Kantuz eman izan tut, zenbeiten berriak,
 Kantuz gustatu izan zait erraitea egiak,
 Kantuz eman baditut ainitzi afruntuia,
 Kantuz barka ditzaten ene bekatuak,
 Kantuz egiten ditut nik penitentziak.

e4

Kantuz eginez geroz, mundura sortzia,
 Kantuz e(g)in beharko dut ene ustez
 hiltzia,
 Kantuz emaiten badaut Jeinkoak grazia,
 Kantuz idokiko daut San Pedrok atia,
 Kantuz egin dezadan, zeruan sartzia.

e5

Kantuz ehorts nezaten, hiltzen naizenian,
 Kantuz ene lagunek harturik airian,
 Kantuz ariko dira ni lurrean sartzian,
 Kantu frango utziko dietet munduan,
 Kantu egin dezaten nitaz oroitzian.

KANTA V**Kantuz****e1**

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi.
 Kantuz igortzen ditut nik penak ihesi.
 Kantuz izan dudanean zerbeit irabazi,
 kantuz gustura ditut guziak irentsi.
 Kantuz ni bezalakoak hiltzea du merezi.

e2

Kantuz pasatu ditut gau eta egunak.
 Kantuz izan dira ardura ene lanak.
 Kantuz biltzen nituen aldeko lagunak.
 Kantuz eman dizkidate obra gabe famak.
 Kantuz hartuko ahal nau gure Jainko
 Jaunak.

e3

Kantuz eman izan ditut zenbaiten berriak.
 Kantuz gustatu izan zait erratea egiak.
 Kantuz eman dizkiot anitzi afruntuak,
 kantuz barka ditzaten ene bekatuak.
 Kantuz egiten ditut nik penitentziak.

e4

Kantuz eginez geroz mundura sortzea,
 kantuz egin beharko dut ene ustez hiltzea.
 Kantuz ematen badit Jainkoak grazia,
 kantuz irekiko dit San Petrik atea,
 kantuz egin dezadan zeruan sartzea.

e5

Kantuz ehorts nazaten hiltzen naizenean.
 Kantuz ene lagunek harturik airean,
 kantuz ariko dira ni lurrean sartzean.
 Kantu franko utziko diet munduan,
 kantuz egin dezaten nitaz oroitzean.

igorri: bidali

ardura: maiz, sarri

afruntu: laido, irain

12. JELKALDIA

Maneko plazan pilota-partidua jokatu zuten
Sorhoetak eta Lerrenak Arretxeren eta
Mediagaren kontra

Jose Mendiaga**98**

Egün plaza eder hontan
jente hanitx da jüntatü
Egiazki heben giroa
oso zaükü aberastü.

Pedro Arretxe**99**

Hirekilan ados gira
bena heben egoitea
Biziaren hobetzeko
ez dügü hon irabazea !

Luis Sorhoeta**100**

Jente hanitx trüfan dira
zer dolü, goibeltarzüna
Mündüan herritik joalea
denetarik dük alargüna.

Belissario Lerrena**101**

Bigabostetan bürüan
egon niz düda handian
Behar niala abiatü
berriz harat itsasontzian !

Pedro Arretxe**102**

Zerentako berriz joan ?
han errigei izateko !
Heben dügü gabezia
ixil ixila gordeko.

Jose Mendiaga**103**

Borondatea düzüe,
osagarria, indarra
Ez otoi apal besoak
alkar dezagün sügarra !

12. JELKALDIA**Jose Mendiaga****98**

Egun plaza eder honetan
jende anitz da juntatu.
Egiazki hemen giroa
oso zaigu aberastu.

Pedro Arretxe**99**

Hirekin ados gara,
baina hemen egotea
biziaren hobetzeko,
ez dugu on irabaztea!

Luis Sorhoeta**100**

Jende anitz trufan dira.
Zer dolu, goibeltasuna!
Munduan herritik joalea
denetarik duk alarguna.

Belissario Lerrena**101**

Biga-bostetan buruan
egon naiz duda handian,
behar nuela abiatu
berriz harat itsasontzian!

Pedro Arretxe**102**

Zerendako berriz joan,
han irrigai izateko?
Hemen dugu gabezia
isil-isila gordeko.

Jose Mendiaga**103**

Borondatea duzue,
osagarria, indarra.
Ez, otoi, apal besoak.
Elkar dezagun sugarra!

trufa: burla

biga-bostetan: maiz

irrigai: barregarri

isil-isila: isilik

osagarri: osasun

13. JELKALDIA

1894an, Juan Idiarte Borda Uruguaiako lehendakari egin zuten

**Julio Herrera Obes
104**

Hogeita bi egün beraz
igaranik bozkatzeko
Gerokoz zira harturik
Lehendakari denentako.

**Juan Idiarte Borda
105**

Orai gobernü bat azkar
behar dü't ezari plantan
Eta bakearen gisan
popülüa gurekilan.

106

Montevideoko portü,
herrien arteko bide,
Eskola haur güzientzat,
denak oro ene xede.

**Julio Herrera Obes
107**

Ene bermea badükek
gaüza horien egiteko
Eta behar bada haboro
lanez hire lagüntzeko.

**Battle y Ordoñez
108**

Ni alderdiko nausia
orai berri haütatürrik
Indar eginen dü't ere
adiskideek bermatürrik.

**Juan Idiarte Borda
109**

Eüskaldün seme nizala
erakutsiko dü't dener
Altxatzeko gizarte bat
gustatüren dena oroer.

13. JELKALDIA**Julio Herrera Obes
104**

Hogeita bi egun, beraz,
igaranik bozkatzeko.
Gerokotz zara harturik
lehendakari denendako.

**Juan Idiarte Borda
105**

Orain gobernu bat azkar
behar dut ezarri plantan,
eta bakearen gisan
populua gurekin.

106

Montevideoko portu,
herrien arteko bide.
Eskola-haur guzientzat,
denak oro ene xede.

**Julio Herrera Obes
107**

Ene bermea badukek
gauza horien egiteko,
eta behar bada haboro
lanez hire laguntzeko.

**Battle y Ordoñez
108**

Ni alderdiko nagusia
orain berri hautaturik,
indar eginen dut ere
adiskideek bermaturik.

**Juan Idiarte Borda
109**

Euskaldun seme naizela
erakutsiko diet denei,
altxatzeko gizarte bat
gustatuko zaiena orori.

igaran: igaro

azkar: indartsu, sendo

dukek: izango duk

haboro: gehiago

orain berri: duela gutxi

KANTA VI**Euskaldun baten kontseilua
Montevideoko presidenteari****f1**

Karga handien azpian jarria zirade,
Izan duzun kargua gora izanik ere;
Lurrian dena ezin altxa laguntzarik gabe,
E(g)in ahala egizu herriaren alde,
Zure obra ederren, denak beha gaude.

f2

Zure baitan daukagu gure esperantza,
Laguntzalerik gabe ez gitazke altxa,
Beharretan girela badakizu ontsa.
Jendeak hartuz geroz zutan konfiantza,
Zuk ere ez dukezu laguntzalia falta.

f3

Nahi gabe ezartzen zaituzte ohoretan,
Euskal Herrietako moda ederretan,
Erakuts diezozute, obra guzietan,
Ez zirela bakarrik "vasco" arropetan,
Euskaldunen odola duzula zainetan!

f4

Euskaldunen sinestia, hau da zuretako,
Makurrak dituzula ontsa arranjatuko;
Uste dugu ez girela hortan tronpatuko,
Denbora jinen denian obren ikusteko,
Oihu eginen dugu: "Emak-hor, Juazinto!".

f5

Gizonek egin obrak ez ditazke gorda,
Guziek bistan dugu Artigas-en obra,
Konfiantzan emana, zure eskuian hor da:
Hori, behar bezala ditaken kontserba,
Entsegu bat egizu, Idiarte Borda!

KANTA VI**Euskaldun baten kontseilua
Montevideoko presidenteari****f1**

Karga handien azpian jarria zara.
Izan duzun kargua gora izanik ere,
lurrean dena ezin altxa laguntzarik gabe.
Egin ahala egizu herriaren alde.
Zure obra ederren denak beha gaude.

f2

Zure baitan daukagu gure esperantza.
Laguntzailerik gabe ez gaitezke altxa.
Beharretan garela badakizu ontsa.
Jendeak hartuz geroz zutan konfiantza,
zuk ere ez dukezu laguntzailea falta.

f3

Nahi gabe ezartzen zaituzte ohoretan,
euskal herrietako moda ederretan.
Erakuts iezaezu obra guzietan
ez zarela bakarrik "vasco" arropetan;
euskaldunen odola duzula zainetan!

f4

Euskaldunen sinestea hau da zuretako:
makurrak dituzula ontsa arranjatuko.
Uste dugu ez garela horretan tronpatuko.
Denbora jinen denean obren ikusteko,
oihu eginen dugu: "Emak hor, Juazinto!".

f5

Gizonek egin obrak ez daitezke gorde.
Guziek bistan dugu Artigas-en obra.
Konfiantzan emana, zure eskuan hor da.
Hori behar bezala dadin kontserba,
entsegu bat egizu, Idiarte Borda!

beha: begira**ontsa:** ondo, ongi**dukezu:** izango duzu**arranjatu:** antolatu
tronpatu: engainatu
jin: etorri

14. JELKALDIA

1897an, Idiarte Borda lehendakaria hil zuten, Montevideoko katedraletik irtetean

Aparicio Saravia**110**

Gure Lehendakari hau ez bere aldekoen baizik Saihets ützen dütü besteak gosez ahoak zabalik.

111

Behar dügü borrokatü Idiarte Borda kanporatü Beste gizarte bat orai hobeago adelatü.

Muñiz**112**

Idiarte Bordaren ganik kargüa düt lehertzea Oldarziale, bühürrien armez gaur igaraitea.

Juan Idiarte Borda**113**

Katedral handi hontan entzünik meza ederra Orai behar dügü denek bidea hartü behera.

Avelino Arredondo**114**

Ni beti bazter ützirik alderdikoek trüfatürrik Egitate honez orai nizate mendekatürrik.

Juan Idiarte Borda**115**

Adio ene Herria kargüa, (e) ta familia, Zelüalat joan behar hilik niz denaz etsia.

14. JELKALDIA**Aparicio Saravia****110**

Gure lehendakari hau ez bere aldekoen baizik. Saihets uzten ditu besteak, gosez ahoak zabalik.

111

Behar dugu borrokatu; Idiarte Borda kanporatu. Beste gizarte bat orain hobeago adelatu.

Muñiz**112**

Idiarte Bordarenganik kargua dut lehertzea, oldartzaile, bihurrien armez gaur igaratea.

Juan Idiarte Borda**113**

Katedral handi honetan entzunik meza ederra, orain behar dugu denek bidea hartu behera.

Avelino Arredondo**114**

Ni beti bazter utzirik, alderdikoek trufaturik, egitate honez orain naizateke mendekaturik.

Juan Idiarte Borda**115**

Adio, ene Herria, kargua eta familia. Zerura joan behar; hilik naiz, denaz etsia.

saihets: bazter, albo**adelatu:** prestatu

kargu: agindu
lehertu: zapaldu
armez: armetatik
igaran: igaro

trufatu: burla egin
egitate: gertaera, egintza
naizateke: izango naiz

15. JELKALDIA

1897an, Otxalde bertsolaria hil zen. Ez zuten gorpua elizan sartzen utzi.

Otxalderen auzoa**116**

Egün Herrian badügu
gizon handi bat zentürik
Hau da Otxalde poeta
mündüan ezagütürik.

117

Züer бүрүз hortarakoz
horra nintzan hitzartzeko
ehortzeta nola dügün
algarrekin plantatüko.

Antxordoki auzapeza**118**

Ameriketan ütirik
familia bat osorik
Honat jin zaikü auherrik
ez dü merexi ohorerik.

Serora**119**

Izen horren entzüteak
biloa deit eraikitzen
Okerkeria baizik ez dü
bere üngürüan hedatzen.

Hargindegi apaiza**120**

Mezarik gabe dateke
gaur honen omenaldia
Debekatzen deiot arren
eliza hontan sartzea.

Otxalderen auzoa**121**

Jinko Jaunaren etxea
ez da denen aterbea?
Sinestea hola ikustez
sortzen zait düda handia!

Oro joan. Jalgi aingeruak, eta kanta.

122

Jinko honaren legea
ez da gizonen elea
Behin denak ohitüren
galdürük dela fedea.

15. JELKALDIA**Otxalderen auzoa****116**

Egun herrian badugu
gizon handi bat zendurik.
Hau da Otxalde poeta,
munduan ezagüturik.

117

Zuei buruz, hortarakotz,
horra nintzen hitzartzeko
ehortzeta nola dugun
elkarrekin plantatuko.

Antxordoki auzapeza**118**

Ameriketan utzirik
familia bat osorik,
honat jin zaigu alferrik.
Ez du merezi ohorerik.

Serora**119**

Izen horren entzuteak
biloa dit eraikitzen.
Okerkeria baizik ez du
bere inguruan hedatzen.

Hargindegi apaiza**120**

Mezarik gabe dateke
gaur honen omenaldia.
Debekatzen diot, arren,
eliza honetan sartzea.

Otxalderen auzoa**121**

Jainko Jaunaren etxea
ez da denen aterpea?
Sinestea hola ikustez,
sortzen zait duda handia!

122

Jainko onaren legea
ez da gizonen elea.
Behin denak ohituko,
galdurük dela fedea.

zuei buruz: zuengana
horra izan: etorri
ehortzeta: hileta
plantatu: antolatu

jin: etorri

bilu: ile

dateke: izango da

arren: bada, beraz

ele: hitz
ohitu: abandonatua izan

123

Amodio hatsarekin
helden gira eskentzera
Guri behatzen direner
zelükoen izaera.

Margarita

124

Entzün düzüa berria
Otxalde bertsularia
Hil dela Euskal Herrian
zer gizon maitagarria.

Jose Mendiaga

125

Lantüren düt kantorea
bai eta omenaldia
Ameriketan hau beitzen
egiazki preziatüa.

123

Amodio-hatsarekin
helden gara eskaintzera
guri behatzen direnei
zerukoek izaera.

Margarita

124

Entzun duzua berria?
Otxalde bertsularia
hil dela Euskal Herrian.
Zer gizon maitagarria!

Jose Mendiaga

125

Landuko dut kantorea
bai eta omenaldia,
Ameriketan hau baitzen
egiazki preziatua.

kantore: abesti

KANTA VII**Jean Bautista Otxalderi****g1**

Otxalderi hasten naiz bi bertso kantatzen;
 Esperantzan nauela zerutik aditzen.
 Nahiz gure aldetik apartatua den,
 Obra ederra frango utzi dauku hemen,
 Haren izena aise ahantz ez dadien!

g2

Euskal Herrian alde egin du indarra,
 Ikusiz bazutela zerbaiten beharra;
 Omone onarekin sortu zen mundura,
 Beti ibili izan da batetik bertzera,
 Gazte eta zaharren alegeratzera.

g3

Bertsulari ederra Otxalde edo Borda,
 Hoberik izan denez bada mila duda:
 Munduan pasaturik hainitz negu eta uda,
 Adinaren konforme mundutikan joan da;
 Sortzian ekarri zorra hola pagatzen da.

g4

Sekulan gal ez dadin Euskaldunen fama,
 Segitu behar dugu harek hasi lana.
 Errespeta dezagun jaun haren izena,
 Hoi da gure ganik merezi duena,
 Estimagarri baita halako gizona.

g5

Hau da nik Otxalderi eman dudan meza;
 Bakotzak bere partez hoinbertze egin
 beza!
 Inkomodatu gabe elizan apeza,
 Zoin gure etxetarik eginez otoitza.
 Jainkoak bertsolariak zeruan har bitza!

KANTA VII**Jean Bautista Otxalderi****g1**

Otxalderi hasten naiz bi bertso kantatzen,
 esperantzan nauela zerutik aditzen.
 Nahiz gure aldetik apartatua den,
 obra ederra franko utzi digu hemen,
 haren izena aise ahantz ez dadin!

g2

Euskal Herriaren alde egin du indarra,
 ikusiz bazutela zerbaiten beharra.
 Umone onarekin sortu zen mundura.
 Beti ibili izan da batetik bertzera,
 gazte eta zaharren alegeratzera.

g3

Bertsolari ederra Otxalde edo Borda.
 Hoberik izan denetz bada mila duda.
 Munduan pasaturik anitz negu eta uda,
 adinaren konforme mundutik joan da.
 Sortzean ekarri zorra hola pagatzen da.

g4

Sekulan gal ez dadin euskaldunen fama,
 segitu behar dugu hark hasi lana.
 Errespeta dezagun jaun haren izena.
 Hori da gureganik merezi duena,
 estimagarri baita halako gizona.

g5

Hau da nik Otxalderi eman diodan meza.
 Bakotzak bere partez hainbertze egin
 beza
 inkomodatu gabe elizan apeza,
 zein gure etxetarik eginez otoitza.
 Jainkoak bertsolariak zeruan har bitza!

aise: erraz

alegeratu: alaitu

16. JELKALDIA

Jalgi ur bedeinkatuetakoa igelak

Bidegarazi**126**

Joan diren Euskaldün horik
ezdeüs elibat dirade
Ürgülüz oro beterik
gü denak ados girade.

Luhosopiper**127**

Musak hütsik jiten zaizkü
zonbait berriz herriala
Erraitez Ameriketan
Hontarzünak dütüela.

Eletarrapata**128**

Bai eta koblakan ere
nausitzen ari direla
Handixko da balentria
ikusi eta nibela.

Zinkurin**129**

Beste zonbaitek etxeak
heben dütüe erosten
Lürrak eta kabaleak
behardünanter elkitzen.

Zakütto**130**

Behar badügü etxeki
gure herria bizirik
Horiekilan harremanak
hobe dira bekantürik.

Sardemihi**131**

Ütz ditzagün kandela horik
beren artean bizitzera
Eta goatzan algarrekin
apezaren behatzera.

16. JELKALDIA**Bidegarazi****126**

Joan diren euskaldun horiek
ezdeus elibat dira,
urguiluz oro beterik.
Gu denak ados gara.

Luhosopiper**127**

Moltsak hutsik jiten zaizkigu
zenbait berriz herrira,
erratez Ameriketan
ondasunak dituztela.

Eletarrapata**128**

Bai eta koblakan ere
nagusitzen ari direla.
Handixko da balentria,
ikusi-eta nibela.

Zinkurin**129**

Beste zenbaitek etxeak
hemen dituzte erosten.
Lürrak eta kabalak
behardunei ilkitzen.

Zakutto**130**

Behar badugu atxiki
gure herria bizirik,
horiekin harremanak
hobe dira bakandurik.

Sardemihi**131**

Utz ditzagun kandela horiek
beren artean bizitzera,
eta goazen elkarrekin
apezaren behatzera.

elibat: batzuk
urguilu: harrotasun

moltsa: poltsa
jin: etorri

kobla: bertso

ikusi-eta: ikusi ondoren

kabala: abere, azienda
ilki: kendu

bakandu: amaitu; urritu

apez: apaiz
behatu: adi entzun

17. JELKALDIA

1900ean Buenos Aireseko Euskal Etxea eraiki zuten

132

Euskaldünen bakidea egün oso handitürrik Behar dügü zerbait egin hortan gira adostürrik.

Martin Errekaborda**133**

Ene lürretan badüket aski lekü denentako Algarrekin dügün altxa Euskal Etxe bat hortako.

134

Sos zama handi baten ere orai prest nuk ezarteko Trinket eta gela baten berririk eraikitzeko.

Juan Sébastien Jaca**135**

Zure borontate honak egiazki gütü hunkitzen Hola hegatz bat dükegü oraidanik behardünen.

Aita François Lapitz**136**

Ahal günüke ber gisan eliza bat esküratzen Ikastegi, Zahar Etxe denak algarri kokatzen.

137

Gogoan düt meza eüskaraz sinesdüner eskentzea Jinkoaren mezülari ororentzat izatea.

Pierre Goihenexpe**138**

Zazpi probintzietarik heltzen dirade jenteak Heben badükegü hola non algar jünta ideiak.

Jean-Pierre Passicot**139**

Izentatü berri beniz alkarteko nausi berri Nahi nüke jinarazi bizpahiru bertsolari.

17. JELKALDIA**132**

Euskaldunen bakidea egun oso handitürrik, behar dugu zerbait egin. Horretan gara adosturik.

Martin Errekaborda**133**

Ene lurretan baduket aski leku denendako. Elkarrekin dugun altxa Euskal Etxe bat hortako.

134

Sos-zama handi baten ere orain prest nauk ezartzeko, trinket eta gela baten berririk eraikitzeko.

Juan Sébastien Jaca**135**

Zure borondate onak egiazki gaitu hunkitzen. Hola hegatz bat dukegu oraindanik behardunen.

Aita François Lapitz**136**

Ahal genuke ber gisan eliza bat eskuratzen. Ikastegi, zahar-etxe, denak elkarri kokatzen.

137

Gogoan dut meza euskaraz sinestunei eskaintzea, Jainkoaren mezulari ororentzat izatea.

Pierre Goihenexpe**138**

Zazpi probintzietarik heltzen dira jendeak. Hemen badukegu hola non elkar junta ideiak.

Jean-Pierre Passicot**139**

Izendatu berri bainaiz elkarteko nagusi berri, nahi nuke jinarazi bizpahiru bertsolari.

bakide: elkarte**duket:** izango dut**dugun:** dezagun**sos:** diru**ezarri:** inbertitu**dukegu:** izango dugu**hegatz:** teilatu**behardunen:** behartsuentzat**dukegu:** izango dugu**jinarazi:** etorrarazi

Martin Errekaborda

140

Gaüza horien ospatzeko
beharko dük bildü hona.
Koblakari famatüa
hau da Mendiague jauna.

Denak erretira

Martin Errekaborda

140

Gauza horien ospatzeko
beharko duk bildu ona.
Koblakari famatua,
hau da Mendiaga jauna.

koblakari: bertsolari

18. JELKALDIA

1900ean, Euskal Herritik joandako poetak
goretsi zituzten

Jose Mendiaga**141**

Deitürrik niz harat honat
kantore kobla hontzeko
Plazerez beti noazü
üsantxaren ez galtzeko.

142

Bena beti gogoan düüt
gurekilan egon diren
Iparragirre, Otaño
poeta handiak ziren!

Margarita**143**

Otxalderen hiltzeak ere
denak gütü minberatü
Audela hau deiküe han
mezarik gabe lürpetü!

Martin Mendiaga**144**

Ez üken gaur bihozminik
zü zira ezagütürrik
Urüguain et(a) Argentinan
orai denek galtatürrik.

Martin Mendiaga**145**

Zure idazlanak ere
oro dira hedatürrik
Baionan, Kalifornian
arrakastaz honartürrik.

Rémigio Galdos**146**

Zure bizia eder da
kausitü düzü denetan
Lanean eta kültüran
hor zira aitzindarietan.

Margarita**147**

Badakit ene gizona
gaur zure idatz mündüan
Ahaireak eta hitzak
dirate osto gainean.

18. JELKALDIA**Jose Mendiaga****141**

Deiturik naiz harat-honat
kantore-kobla ontzeko.
Plazerez beti noa,
usantzaren ez galtzeko.

142

Baina beti gogoan ditut
gurekin egon diren
Iparragirre, Otaño...
Poeta handiak ziren!

Margarita**143**

Otxalderen hiltzeak ere
denak gaitu minberatu.
Areago, hau digute han
mezarik gabe lurpetu!

Martin Mendiaga**144**

Ez ukan gaur bihozminik,
zu zara ezaguturik.
Uruguain eta Argentinan
orain denek galdaturik.

Martin Mendiaga**145**

Zure idazlanak ere
oro dira hedaturik,
Baionan, Kalifornian
arrakastaz onarturik.

Rémigio Galdos**146**

Zure bizia eder da;
kausitu duzu denetan.
Lanean eta kultur
hor zara aitzindarietan.

Margarita**147**

Badakit, ene gizona:
gaur zure idatz-munduan
ahaireak eta hitzak
dirateke hosto gainean.

kantore: abesti**kobla:** bertso**galdatu:** eskatu**kausitu:** arrakasta lortu**ahaire:** doinu**dirateke:** izango dira

KANTA VIII**Euskaldun bertsolariak****h1**

Lehengo bertsulari zaharren izenak,
 Ez ditu ahantzi behar Euskalduna denak:
 Heiek egin dituzte beti obra onak,
 Zerbait ikas dezake hetarik gizonak;
 Estimagarri dira halako presunak;
 Ontsa merezituri badituzte famak.

h2

Bertsulari onak ziren Katso eta Etxahun,
 Halakorikan orai ote dugu nehun?
 Heiek egin dutena, guk egin dezagun:
 Debrua utzi eta Jainkoa har lagun.
 Bi pelegriño ziren, ohora ditzagun!
 Agian Jainko Jaunak berekin (di)tu egun!

h3

Jan Bautista Otxalde eta Elizanburu,
 Heien obrak oraino gogoan ditugu:
 Erakutsi daukate nola errespetatu,
 Ez ginukela behar nehor ofentsatu;
 Jaun heien konseiluak behar (di)tugu hartu,
 Ez dakienak beti ikastea on baitu.

h4

Putxuna, Bordaxuri, huna bi Hazpandar,
 Isturitzen Karrankak e(g)iten zuen indar.
 Oi, zer bertsularia, Kanbon Lohiotzar!
 Ezin bentzutu dute egundaino elgar.
 Bat bertzia baino hobe, norbait izan behar.

Guzientzat nagusi izan da Xenpelar.

h5

Bertze bertsulari hainitz izan da munduan,
 Ontsa estimaturik gizonen artian,
 Kantatu izan dutena, omore onian,
 Jendez inguratuak, trankil bihotzian.
 Guk desira dezagun, hetaz oroitzian,
 Jainkoak atxiki ditzan bere sahetzian.

KANTA VIII**Euskaldun bertsolariak****h1**

Lehengo bertsulari zaharren izenak
 ez ditu ahantzi behar euskalduna denak.
 Haiek egin dituzte beti obra onak.
 Zerbait ikas dezake haietarik gizonak.
 Estimagarri dira halako pertsonak.
 Ontsa merezituri badituzte famak.

h2

Bertsulari onak ziren Katso eta Etxahun.
 Halakorik orain ote dugu nehon?
 Haiek egin dutena, guk egin dezagun:
 Deabrua utzi eta Jainkoa har lagun.
 Bi pelegriño ziren; ohora ditzagun!
 Agian, Jainko Jaunak berekin ditu egun!

h3

Jean Bautista Otxalde eta Elizanburu,
 haien obrak oraino gogoan ditugu.
 Erakutsi digute nola errespetatu,
 ez genukeela behar nehor ofentsatu.
 Jaun haien kontseiluak behar ditugu hartu,
 ez dakienak beti ikastea on baitu.

h4

Putxuna, Bordaxuri, hona bi hazpandar.
 Isturitzen Karrankak egiten zuen indar.
 Oi, zer bertsularia Kanbon Lohiotzar!
 Ezin bentzutu dute egundaino elkar.
 Bat bertzea baino hobe, norbait izan behar.

Guzientzat nagusi izan da Xenpelar.

h5

Bertze bertsulari anitz izan da munduan
 ontsa estimaturik gizonen artean.
 Kantatu izan dute umore onean,
 jendez inguratuak, trankil bihotzian.
 Guk desira dezagun, haietaz oroitzian,
 Jainkoak atxiki ditzan bere sahetzean.

ontsa: ongi

oraino: oraindino

bentzutu: garaitu

ontsa: ondo

saihets: albo, ondo

19. JELKALDIA

1912, Inziarte Montevideoko "Euskal-Erria"
elkarteko lehendakariaren etxean

Nikolas Inziarte**148**

Agurtzen zütüet oro
jinik saldoan gutara
Euskal Herriaren hatsa
heltü da besta hontara.

Nikolas Inziarten emaztea**149**

Hebenko jei güzietan
üdüri zait han girela
Eüskal Herriko giroa
gurekilan beti dela.

Jose Mendiaga**150**

Musde Intziart orai zaitugu guziek
felizitatzen,
Ikus dezazun gure desira zuretzat nolakoa
den;
Berrogeita hameka urte egun dituzu
konplitzen,
Hemendik harat bertze hainbertze agian
dituzu eginen!

Beltran Bidegarai**151**

Montevideo-ko "Euskal-Erria"-n zu zaitugu
gidaria,
Segur ez baita zure eskuan kargua gaizki
ezarria:
Kontseilu onak emaiten (di) tuzu, ongi
erakutsiz bidea,
Unionean bizi dadien gure arraza noblea.

Kantariak**152**

Euskal Herriko kostuma ederrak zuri ez
zaizkizu ahantzi,
Etsenplu ona eman daukuzu, denek
dezagun ikasi,
Zenbaitek aise e(g)iten ginuen oihu kantu
eta jauzi,
Holakorikan ez baiginuen Ameriketara ikusi.

19. JELKALDIA**Nikolas Inziarte****148**

Agurtzen zaituztet oro
jinik saldoan gutara.
Euskal Herriaren hatsa
heldu da besta honetara.

Nikolas Inziarten emaztea**149**

Hemengo jai guzietan
iduri zait han garela,
Euskal Herriko giroa
gurekin beti dela.

Jose Mendiaga**150**

Musde Intziart, orain zaitugu guziek
felizitatzen,
ikus dezazun gure desira zuretzat nolakoa
den.
Berrogeita hamaika urte egun dituzu
konplitzen.
Hemendik harat bertze hainbertze agian
dituzu eginen!

Beltran Bidegarai**151**

Montevideoko Euskal-Erriara zu zaitugu
gidaria,
segur ez baita zure eskuan kargua gaizki
ezarria.
Kontseilu onak ematen dituzu, ongi
erakutsiz bidea,
batasunean bizi dadin gure arraza noblea.

Kantariak**152**

Euskal Herriko kostuma ederrak zuri ez
zaizkizu ahantzi.
Etsenplu ona eman diguzu, denek
dezagun ikasi.
Zenbaitek aise egiten genuen oihu, kantu
eta jauzi,
holakorik ez baikenuen Ameriketara ikusi.

jin: etorri
saldo: talde
gutara: gugana
besta: festa, jai

iduri izan: iruditu

musde: jaun

kostuma: ohitura

153


Zure etxean aditu dugu tanboril eta xirula

Zahar batzuek uste ginuen arras gaztetu ginela,
Hirur-hogoita-zortzi urteko bat, beroturik odola,
Ezin egonez dantzan hasi zen, mutil gazte bat bezala.

153

Zure etxean aditu dugu danbolin eta txirula.

Zahar batzuek uste genuen arras gaztetu ginela.
Hirurogeita zortzi urteko bat, beroturik odola,
ezin egonez dantzan hasi zen, mutil gazte bat bezala.



20. JELKALDIA

Uruguako emazte mihiokerrak

**Kükümarro
154**

Bazter orotarik heltü dira
euskaldün gosegorriak
Gure lanaren hartzeko
egiazko asegarriak.

**Nahaspuila
155**

Ezne saltzale direnak
bertan oro aberastürik
Eznean hur ezar eta
erostünak koditürik.

**Karrakots
156**

Ostaler nausi zonbaitek
eskentzen mehe mehea
Etxenko ardo gorria
hurarekin nahasia.

**Kasamierda
157**

Kültürarik gabe dira
espainolik ez emaiten
Beren artean bizi dira
bestekilan ez mintzatzen.

**Kaskopela
158**

Holako jente arraza
behar lizate atetü
Itsasontzietan ezari
eta hebentik baztertü.

**Küskühüts
159**

Aski denbora galdürik
goatzen horien zirikatzeroa
Oldartzen balinbadira
presontegian ezartera.

Denak erretira.

20. JELKALDIA**Kukumarro
154**

Bazter orotarik heldu dira
euskaldun gosegorriak
gure lanaren hartzeko.
Egiazko asegarriak!

**Nahaspuila
155**

Esne-saltzaile direnak
bertan oro aberasturik,
esnean ur ezar eta
erostunak koditurik.

**Karrakots
156**

Ostalari nagusi zenbaitek
eskaintzen mehe-mehea,
etxeko ardo gorria
urarekin nahasia.

**Kasamierda
157**

Kulturarik gabe dira;
espainolik ez ematen.
Beren artean bizi dira,
besteekin ez mintzatzen.

**Kaskopela
158**

Holako jende-arraza
behar litzateke atetu,
itsasontzietan ezarri,
eta hementik baztertü.

**Kuskuhuts
159**

Aski denbora galdurik,
goazen horien zirikatzeroa.
Oldartzen baldin badira,
presondegian ezartzera.

asegarri: nekarazle

koditu: zirikatu

mehe-mehea: meheki

atetu: bildu

21. JELKALDIA

1914, artzainak Urtsua mendian

160

Egün hon artzain lagünak
bortüan agitzen girenak
Amerikatik badütüt
idatziz berri xüxenak.

Marti**161**

Aipatzen düzü Mendiague
atzoko gazte lagüna
Honen poesia orai
heben dügü ezagüna.

Battitta**162**

Horri esker heltzen dira
honorat artino berriak
Eta ahaide batekin
ahazten ezinbestek.

Pette**163**

Zorigaitzez gerla baten
keinüak Alemanian
Eta Frantzia dateke
gure gazten beharrean.

Allande**164**

Ez da bizia zeditzen
handien ukaldietan
Kanta dezagün goratik
esperantxa mendietan.

Denek kanta

21. JELKALDIA**160**

Egun on, artzain lagunak,
bortuan agitzen garenak.
Amerikatik baditut
idatziz berri zuzenak.

Marti**161**

Aipatzen duzu Mendiaga,
atzoko gazte laguna.
Honen poesia orain
hemen dugu ezaguna.

Battitta**162**

Horri esker heltzen dira
honorat artio berriak,
eta ahaire batekin
ahazten ezinbestek.

Pette**163**

Zorigaitzez, gerla baten
keinüak Alemanian.
Eta Frantzia dateke
gure gazteen beharrean.

Allande**164**

Ez da bizia ematen
handien ukaldietan.
Kanta dezagun goratik
esperantza mendietan.

bortu: mendi
agitu: elkartu

ahaire: doinu
ezinbeste: zailtasun, ezbehar

dateke: izango da

ukaldi: kolpe

KANTA IX Artzainak kantan

i1

Artzain hanitx mündüan, hedatürük
mendian
Egoiten dira berak, nigarra begian
Aizea mezülari, denez egarrían
Eüskal Herri maitea, beren bihotzean.

i2

Zer lizate bizia, hazkuntza gabetarik
Hirían jente franko, bertan gosetürük
Ezagütza jinen da, behin ohartürük
Artzaina behar dela, noizbait honartürük.

i3

Egon gitean beraz, ber alkartzüzüanean
Arbasoen xendetan, handitarzüzüanean
Historiak beiteikü, erreka lüzüean
Emanen oparia, gure bihotzean.

Errepika

Egün, artzainak, kanta goratik gure
filosofia
Zelüan argi, bihotza laxü, güne paregabea
Ahaire batek emaiten deikü, agoñü berezia
Kanta goratik egün, artzainak, gure
libertatea.

KANTA IX Artzainak kantan

i1

Artzain anitz munduan hedaturik mendian.

Egoten dira berak negarra begian.
Haizea mezulari denez, egarrían,
Euskal Herri maitea beren bihotzean.

i2

Zer litzateke bizia hazkuntza gabetarik?
Hirían jende franko bertan goseturik.
Ezagutza jinen da, behin oharturik
artzaina behar dela noizbait onarturik.

i3

Egon gaitezen, beraz, ber elkartasunean,
arbasoen xendetan, handitasunean,
historiak baitigu erreka luzean
emanen oparia gure bihotzean.

Errepika

Egun, artzainak, kanta goratik gure
filosofia.
Zeruan argi, bihotza laxo, gune paregabea!
Ahaire batek ematen digu agoñu berezia.
Kanta goratik egun, artzainak, gure
libertatea.

hazkuntza: abere-hazkuntza
gabetarik: gabe
ezagutza: aitopen, onirizpen
jin: etorri

xenda: zidor, bide

laxo: aske, lokabe
ahaire: doinu
agoñu: adore, kemen

22. JELKALDIA

1916an, Hipolito Irigoien Argentinako lehendakari hautatu zuten

Hipolito Irigoien**165**

Gizarte honen hobetzeko egün kargü bat düt hartzen Ene ministro güziak züekilan niz abiatzen!

166

Europan gerla handia horrek dü gose gorria Beharrezko izanen da. gure saihets egoitea.

167

Estatüaren mozkina behar dügü partekatü Egünean zortzi oren laneko ere finkatü.

Honorio Pueyrredón**168**

Badakit nahi dütüzüla hazkuntza (e)ta laborantxa Zinez aitzinarazi eskentü ere sos lagüntza.

Jose Salinas**169**

Alokaidüen plomatzea etxauetarik ohiltzea Hori date zurekilan xede preziagarria.

Helena Irigoien**170**

Indianoen egoera egün beraz xüxentürük Zuri esker dira horiek beren lürrez jabetürük.

Hipolito Irigoien**171**

Badügü zer egiteko denak zidee beharrezko Züekilan ez niz lotsa dena dügü kanbiatüko.

172

Goatzen arren algarrekin bürüaren arintzera Kanpoan den besta hortan kültüraren gozatzerä.

22. JELKALDIA**Hipolito Irigoien****165**

Gizarte honen hobetzeko egun kargu bat dut hartzen. Ene ministro guziak, zuekin naiz abiatzen!

166

Europan gerla handia; horrek du gose gorria. Beharrezko izanen da gure saihets egotea.

167

Estatuaren mozkina behar dugu partekatu. Egunean zortzi oren lanerako ere finkatu.

Honorio Pueyrredón**168**

Badakit nahi dituzula hazkuntza eta laborantza zinez aitzinarazi. Eskaini ere sos-laguntza.

Jose Salinas**169**

Alokairuen plomatzea, etxauetarik ohiltzea, hori dateke zurekin xede preziagarria.

Helena Irigoien**170**

Indianoen egoera egun, beraz, zuzendurik, zuri esker dira horiek beren lurrez jabeturik.

Hipolito Irigoien**171**

Badugu zer egiteko. Denak zarete beharrezko. Zuekin ez naiz lotsa. Dena dugu kanbiatuko.

172

Goazen, arren, elkarrekin buruaren arintzera, kanpoan den besta horretan kulturaren gozatzerä.

saihets: ondo, albo**hazkuntza:** abere-hazkuntza**sos:** diru

plomatu: orekatu
ohildu: bota
etxau: etxalde
dateke: izango da

lotsa: beldur**arren:** beraz**besta:** jai

KANTA X
Virgen morenita

j1
Virgen Morenita, virgen milagrosa
virgen Morenita te elevo mi cantar
son todos en el valle devotos de tus
ruegos
son todos peregrinos señora del lugar.

j2
Virgen Morenita, india fue tu cuna
porque india tu naciste, por la gracia de
Dios
así somos esclavos de tu bondad divina
así somos esclavos de tu infinito amor.

j3
Así será, virgen mía
mereces el respeto y la veneración
por eso yo te canto te elevo mis plegarias
y pido que escuches mi ruego por favor.

j4
Virgen Morenita, santa inmaculada
virgen morenita señora del lugar
tu gozas del respeto y cariño de tus hijos
así los peregrinos te rezan en tu altar.

j5
Virgen Morenita, india te llamamos
porque india tu naciste por la gracia de
Dios
así somos esclavos de tu bondad divina
así somos esclavos de tu infinito amor.

j6
Así será, virgen mía
mereces el respeto y la veneración
por eso yo te canto te elevo mis plegarias
y pido que escuches mi ruego por favor.

KANTA X
Virgen morenita

j1
Virgen Morenita, virgen milagrosa
virgen Morenita te elevo mi cantar
son todos en el valle devotos de tus
ruegos
son todos peregrinos señora del lugar.

j2
Virgen Morenita, india fue tu cuna
porque india tu naciste, por la gracia de
Dios
así somos esclavos de tu bondad divina
así somos esclavos de tu infinito amor.

j3
Así será, virgen mía
mereces el respeto y la veneración
por eso yo te canto te elevo mis plegarias
y pido que escuches mi ruego por favor.

j4
Virgen Morenita, santa inmaculada
virgen morenita señora del lugar
tu gozas del respeto y cariño de tus hijos
así los peregrinos te rezan en tu altar.

j5
Virgen Morenita, india te llamamos
porque india tu naciste por la gracia de
Dios
así somos esclavos de tu bondad divina
así somos esclavos de tu infinito amor.

j6
Así será, virgen mía
mereces el respeto y la veneración
por eso yo te canto te elevo mis plegarias
y pido que escuches mi ruego por favor.

23. JELKALDIA**Jose Mendiaga
173**

Europako üngürüa
orai beraz ürrentürrik
Zer dira hanko berriak
horrez niz arrenküratürrik.

**Lionel Tosi
174**

Eni ontsa gustatü zait
alde hartan etxegintza
Lürralde miresgarrian
üken zünüan egoitza.

**Léopoldo Tosi
175**

Zinez kanbiatü omen da
Eüskal Herrian gizartea
Industriak ekarri dü
biziaren hobetzea.

176

Bena bestalde eüskara
entzüten da gütiago
Mügaren bi aldeetan
debekaturik ezinago.

**Maruja Mendiaga
177**

Hazparnen igaraitean
agurtü dügü Kattalin
Zure arreba maitea
hau zen hank(o) ospitalean.

**Jose Mendiaga
178**

Kattalin gurekin egonik
orai han da zahartürrik
Ni aldiz ützüli gabe
nizate heben zentürrik.

179

Bena bizia düdano
idatziren düt gaixoa
Herriari etxekirik
aitzina dadin geroa.

23. JELKALDIA**Jose Mendiaga
173**

Europako ingurua
orain, beraz, urrendurik,
zer dira hango berriak?
Horrez naiz arranguraturik.

**Lionel Tosi
174**

Eni ontsa gustatu zait
alde hartan etxegintza,
lurralde miresgarrian
ukan zenuen egoitza.

**Léopoldo Tosi
175**

Zinez kanbiatu omen da
Euskal Herrian gizartea.
Industriak ekarri du
biziaren hobetzea.

176

Baina, bestalde, euskara
entzuten da gutiago.
Mugaren bi aldeetan
debekaturik ezinago.

**Maruja Mendiaga
177**

Hazparnen igaratean
agurtu dugu Kattalin
zure arreba maitea.
Hau zen hango ospitalean.

**Jose Mendiaga
178**

Kattalin gurekin egonik,
orain han da zaharturik.
Ni, aldiz, itzuli gabe,
naizateke hemen zendurik.

179

Baina bizia dudano
idatziko dut, gaixoa,
Herriari atxikirik
aitzina dadin geroa.

urrendu: bukatu, amaitu**arranguratu:** kezkatu**ontsa:** ondo**igaran:** igaro**naizateke:** izango naiz**dudano:** dudan bitartean

24. JELKALDIA

1937ko irailaren 12an, Mendiaga hil zen

**Jose Mendiaga
180**

Egün zinez einherik niz
bularreko min batekin
Azken orenak dütüt gaur
igaraiteko züekin.

181

Banoazü kantarien
kobla egile lagünen
Zelüalat agurtzera
parka penadünek heben.

**Maruja Mendiaga
182**

Eüskal Herriarendako
egin düzü ezinago
Horrez orituren dira
behin Eüskaldünak oro.

Jalgi aingeruak, eta kanta

183

Nekeziaz bizitzea
joailearen zortea
Latza herriaren hatsa
ordaritako peküa.

184

Zelüko bortak ideki
bihotz hon den jenteari
Kültürer zabal denari
Jinkoak düke opari.

Mendiagak azken otoitza kanta

24. JELKALDIA**Jose Mendiaga
180**

Egun, zinez einherik naiz,
bularreko min batekin.
Azken orenak ditut gaur
igarateko zuekin.

181

Banoa kantarien,
kobla-egile lagunen
zerurat agurtzera.
Barka penadunek hemen.

**Maruja Mendiaga
182**

Euskal Herriarendako
egin duzu ezinago.
Horrez oroituko dira
behin euskaldunak oro.

183

Nekeziaz bizitzea
joailearen zortea.
Latza herriaren hatsa;
ordaritako pekua.

184

Zeruko bortak ireki
bihotz-on den jendeari.
Kulturei zabal denari
Jainkoak duke opari.

einherik: nekaturik, unaturik

igaran: igaro

kobla: bertso

ordaritako: ordaintzat
peku: gaiztakeria

borta: ate

duke: izango du

KANTA XI Euskaldun guziak bat

k1

Lapurdi eta Baxenabarre, Xuberoa eta Nabarra
Gipuzkoa eta Bizkaia, zazpigarrena Araba,
Guziek elgar atxik dezagun, neholere ahal bada,
Aiten kostumak segi ditzagun, galdu ez dezagun Ama.

k2

Nahiz Frantzian ala Espainian, joan den denbora handian,
Gure mintzaia nahiz galerazi ari dirade lanian;
Ama utzi-eta, Amaizuna har, gerta liteke orduan;
Geldi gaitezen gure Amarekin, hoberik ez da munduian.

k3

Euskal Herriak gaizki gabiltza, joan den aspaldi handian,
Batzu Kastillaz, bertziak Frantsesez ari gira solasian;
Denen ikastia gizonak on du, aise ibiltzeko munduian,
Bainan euskara atxik dezagun ahantzi gabe buruian.

k4

Gure Aitamen aitek erranak behar ditugu sinetsi:
Ez dela behar gure Herrian euskara baizik onetsi;
Euskaldun sortu, Euskaldun bizi,
Euskaldun hil eta ehortzi,
Munduan hori e(g)iten duenak, zerua duke merezi.

Jose Mendiaga hil

k5

Kantuz ehorts nezaten, hiltzen naizenian,
Kantuz ene lagunek harturik airian,
Kantuz ariko dira ni lurrean sartzian,
Kantu frango utziko diotet munduian,
Kantu egin dezaten nitaz oroitizian.

KANTA XI Euskaldun guziak bat

k1

Lapurdi eta Baxenabarre, Zuberoa eta Nafarroa,
Gipuzkoa eta Bizkaia, zazpigarrena Araba.
Guziek elkar atxiki dezagun, neholere ahal bada.
Aiten kostumak segi ditzagun, galdu ez dezagun Ama.

k2

Nahiz Frantzian ala Espainian, joan den denbora handian,
gure mintzaira nahiz galarazi ari dira lanean.
Ama utzi-eta amaizuna har, gerta liteke orduan.
Geldi gaitezen gure Amarekin; hoberik ez da munduian.

k3

Euskal herriak gaizki gabiltza joan den aspaldi handian.
Batzuk gaztelaniaz, bertzeak frantsesez ari gara solasean.
Denen ikastea gizonak on du, aise ibiltzeko munduan,
baina euskara atxiki dezagun, ahantzi gabe buruan.

k4

Gure aita-amen aitek erranak behar ditugu sinetsi:
ez dela behar gure Herrian euskara baizik onetsi.
Euskaldun sortu, euskaldun bizi,
euskaldun hil eta ehortzi.
Munduan hori egiten duenak zerua duke merezi.

k5

Kantuz ehorts nazaten hiltzen naizenean.
Kantuz ene lagunek harturik airean,
kantuz ariko dira ni lurrean sartzean.
Kantu franko utziko diet munduan,
kantu egin dezaten nitaz oroitzean.

neholere ahal bada: ahal bada

kostuma: ohitura

utzi-eta: utzi ondoren

amaizun: amaorde

duke: izango du

AZKEN PEREDIKUA**185**

Gogo honez deitzüegü
gure eskerrak eskentzen
Herri txipi hontan oro
egonik guri behatzen.

186

Betidanik hedatürrik
izan dira Eüskaldünak
Oroetan famatürrik
langile oso zügünak.

187

Egün gure bidajea
Amerikan ützülia
Zabaltüren ote deikü
jakintzaren egarria.

188

Historia ere bazen
trajeriaren barnean
Aspaldian izan beita
eüskaldünen egoeran.

189

Mendiague Hazpandarra
oso zen euskaltzalea
Hürrün bizitürrik ere
herriari etxekia.

190

Urteak igaran dütü
kantore (e)ta kobla hontzen
Eta poeta handia
bere denboran izan zen.

191

Ameriketan eüskara
egün ere entzüten da
Eta heben baztertürrik
mintzajearen segida.

192

Mündüan ezagütürrik
eüskaldünen izatea
Agian hortik jinen da
zazpiak baten bidea.

193

Gure gizarte maitea
behar günüke laüdatü
Oroen indarrarekin
behar badü aitzinatü.

AZKEN PEREDIKUA**185**

Gogo onez dizkizuegu
gure eskerrak eskaintzen,
herri txipi honetan oro
egonik guri behatzen.

186

Betidanik hedaturik
izan dira euskaldunak,
orotan famaturik
langile oso zugunak.

187

Egun gure bidajea:
Amerikan itzulua.
Zabalduko ote digu
jakintzaren egarria.

188

Historia ere bazen
trajeriaren barnean,
aspaldian izan baita
euskaldunen egoeran.

189

Mendiaga hazpandarra
oso zen euskaltzalea.
Urrun bizitürrik ere,
herriari atxikia.

190

Urteak igaran ditu
kantore eta kobla ontzen,
eta poeta handia
bere denboran izan zen.

191

Ameriketan euskara
egun ere entzuten da,
eta hemen baztertürrik
mintzairaren segida.

192

Munduan ezagutürrik
euskaldunen izatea,
agian hortik jinen da
zazpiak baten bidea.

193

Gure gizarte maitea
behar genuke laudatu.
Oroen indarrarekin
behar du aitzinatü.

behatu: entzun**zugun:** bihozkoj, ausart**bidaje:** bidaia**trageria:** pastoral**igaran:** igaro
kantore: abesti
kobla: bertso**jín:** etorri

194

Berriz arren esker mila
popülü maitagarria
Algarrekin gozatürrik
kültüraren ütürria.

194

Berriz, arren, esker mila
populu maitagarria,
elkarrekin gozaturik
kulturaren iturria.

arren: bada, beraz

KANTA XII Elkarrekin

I1

Behin herritik, abiatürrik, bihotz puxka bat
ützirik
Besteak aldiz, heben egonik, bena egün
ohartürrik
Gure xokoan, kùltür erroak, beti direla
bizirik
Hortakoz gira, Arrokiagesak, pastoralari
lotürrik.

I2

Agur bero bat, mündü güziko euskaldün
hedatüari
Ikusten dira, züen semeak, bermatürrik
eüskarari
Eüskal Herria, jünta dezagün, züen
espiritüari
Gure haurrekin, ezagützeko, hau dela
baliagarri.

I3

Egünko jeian, bertsularia, bai eta gizon
handia
Haren eleak, eta bizia, Eüskaldünen izatea
Gure lagunak, joan zideenak, maite züez
oritzea
Zabal ditzagün, zübü berriak, altxatzeko
aberria.

Errepika

Algarrekilan, abiatzen gira, xede baten
bürützera
Txipi handiak, gazte xaharrak, herriaren
aidatzera
Düden aizea, lotsen kargüa, kùltür az gaur
tapatzera
Historiaren mürrü lüzean, harri baten
pausatzera.

KANTA XII Elkarrekin

I1

Behin herritik abiaturik, bihotz puska bat
utzirik.
Besteak, aldiz, hemen egonik, baina egun
oharturik
gure txokoan kultur erroak beti direla
bizirik.
Hortakotz gara arrokiagatarrak pastoralari
loturik.

I2

Agur bero bat mundu guziko euskaldun
hedatuari.
Ikusten dira zuen semeak bermaturik
euskarari.
Euskal Herria junta diezaiogun zuen
espirituari,
gure haurrekin ezagutzeko hau dela
baliagarri.

I3

Egungo jaian, bertsolaria bai eta gizon
handia.
Haren eleak eta bizia, euskaldunen izatea.
Gure lagunak, joan zirenak, maite zuetaz
oroitzea.
Zabal ditzagun zubi berriak, altxatzeko
aberria.

Errepika

Elkarrekin abiatzen gara xede baten
burutzera.
Txipi-handiak, gazte-zaharrak, herriaren
airatzera.
Duden haizea, lotsen kargua, kulturaz gaur
tapatzera.
Historiaren murru luzean harri baten
pausatzera.

hortakotz: horregatik

airatu: altxatu

lotsa: beldur

pausatu: jarri